

**EUSKALTZAINDIKO
EGOITZARA SARTZEA**

Bilbo, 1991-X-21

EUSKALTZAINDIKO EGOTZARA SARTZEA

Bilbo, 1991-X-21

Jean Haritschelhar Duhalde

Euskaltzainburuaren sarrera-hitzak

Agintari agurgarriak,
Euskaltzainkideak,
Andereak eta Jaunak,

Bazen lehen, Iparraldean bederen, ohidura zahar bat “etxe sartzea” zeritzana. Ezkont eguna bezperan, ikus zitezkeen herriko bideetan, orgetan eramanak, kutxa, armairu, ohe, bertz eta sukaldeko tresneria guzia, hots, emaztegaiaren dotea zoala bere sort-etxetik gizongaiaren etxeraino. Orgen edo gurdien aintzinean, idi pare bat ederki apaindua marregak jauntzirik, itzainak akulatzen zituela alegeraki. Egun alaia “etxe sartzee” eguna egoitza berrian sartzeko eguna.

Egun alaia gaurko eguna Euskaltzaindiarentzat “etxe sartzea” ospatzen duelakotz zuen aurrean eta zuekin, agintari agurgarriak. Hemen gara denok bildurik gertakari berezi honek merezi duen bezala.

Beharrezkoa zait, nahiz gaingiroki eginen dudan, Euskaltzaindiaren egoitzen aipatzea. Lehena, hemendik ez hain urrun, Bilbo zahar honetan, Ibaizabalaren ondoan datza. Erribera kalearen 6an. Han, egunero zegoen gure euskaltzainburu lehena, Resurreccion Maria de Azkue.

Anekdotat ttipi bat nahi nuke gogoratu: Eusko Jaurilaritza sortu zenean, joan omen zen Azkue Jose Antonio Agirreren agurtzera eta zorionen emaitera. Jose Antonio Agirrek hitzeman zion gerla irabazi orduko behar zen egoitza bat emanen ziola Euskaltzaindiari. Badakizue denok zer iragan zen, zein luzaz egon zen Euskal Herria ilunpean.

“Hitza hitz” dio euskal erran zahar batek eta beraz, hitzemaner gero, hitza atxiki behar. Hori egin du Bizkaiko foru aldundiak bereganatu duelarik Plaza Barri honetan berea izan zen egoitza XIX. mendean. Erosi zuen etxea Makua jaunak, diputatu nagusi zelarrik, pentsatuz Euskaltzaindiaren egoitza egokia izan zitekeela. Eta hain zuzen, hitzarmen bat

izepentu zuten 1985eko uztailaren 10ean, Makua jaunak eta Aita Villasanten, orduko euskaltzainburuak. Ezin ahantzizko ekintza Euskaltzaindiarentzat lekukotasun hau emaiten dudala eskerti izan dadien Bizkaiko foru aldundiarentzat eta Makua jaunaren alarguntsarentzat.

Hitza hitz: xede hori harturik, hasi dira egoitza berritzearen lanak Jose Alberto Pradera diputatu nagusiaren eta Tomas Uribeetxeberria kulturako foru diputatuaren ardurapean. Arkitektoak hautatu, berritze proiektuak, enpresaren hautaketa eginik, lanak bururatu dira joan den apirilaren 26rako. Egun hartan, ospatu genuen Bizkaiko foru aldundiarekin etxe hartzea.

Hitza hitz: etxe hartetik etxe sartzera hirugarren urratsa. Urrats hau, sei hilabetez egin da Eusko Jaurlaritzari, Nafarroako gobernuari eta Bizkaiko, Arabako, eta Gipuzkoako foru aldundiei esker.

Bildu dira erakunde bakoitzeko agintariak, Mari Karmen Garmendia hizkuntza politikarako idazkari nagusi anderea buru, egoitza hau behar den bezala jauntzeko. Ikusiko duzue gero, agintari agurgarriak eta gaur hemen zaudeten jaun andere maiteak, zein ederki apaindua den.

Hemendik goiti, Erribera 6an, Arbieta 3an, Elkano 5ean, Etxebarri herriko gordailuan, sakabanatuak izanak diren gure zerbitzuak, bilduak izanen dira Euskaltzaindiak Bilbon dituen langileen lana errazteko eta, dudarik gabe, Euskaltzaindiaren onerako.

Bai, egun alaia, egun argia Euskaltzaindiarentzat, gaurko eguna. Nere poza agertzen baldin badut egun haundi honetan, nere aurpegi arraiak erakusten baldin badu bihotzean daukadan bozkarioa, ez dute behar bada nere hitzek salatuko nere baitan sentitzen dudan zoria.

Euskaltzainburu gisa eta Euskaltzaindiaren izenean, bihotzaren erditik eskerrak derauzkitzuet. Har ditzala, lehenik, Bizkaiko foru aldundiak gure eskerrik beroenak emaitza hain ederra eta apaina egin digulakotz, har ditzatela gero Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako gobernuak, Bizkaiko, Arabako eta Gipuzkoako foru aldundiek gure eskerrik minenak Egoitza hau hain ederki jauntzi eta apaindu digutelakotz.

Zor haunditan dago Euskaltzaindia. Hegoaldeko lau diputazioek sortua, duela bi urte Oñatiko hitzarmena izenpetu eta, orain bere Egoitza nagusian sarturik, zorren ordaintzeko badu zer egin Euskaltzaindiak. Egia erran, ez du bertzerik eskaintzeko, bere lanak baizik. Lan eta lan, batzordeen bidez ari da egunero, hor direla lekuko azken hamar urte hauetako eskaintzak *Orotariko Euskal Hiztegiaren* lau liburuki (bostgarrena laster), *Lexiko Erizpideen Finkapena* azpi batzordearen azterketak, *Egungo Euskararen Bilketa-lan Sistematikoaren* lanak, euskal gramatikaren *Lehen urratsak* (hiru urrats eginik), *Hizkuntz Altasaren* inkestak aurtan bururatuko direnak, *Onomastikako jardunaldien* liburukiak (lehen, Gasteize-

koa, agertua; bigarrena, Urduñakoa eta hirugarrena, Lizarrakoa, laster agertzekoak), euskal literaturari buruz egiten diren ikerketak.

Euskara zaindu, euskara ikertu, euskara bultzatu, hori da azkenean Euskaltzaindiaren eginbidea, euskaltzainen, euskaltzain urgazle eta languntzaileen lanei esker obratzen dena eta Euskal Herriari Euskaltzaindiak eskaintzen diona. Jakin ezazue sekulan baino kar haundienarekin lanean ari dela.

Hain zuzen, egun ospetsu honen goraiatzeko, pentsatu du, Euskaltzaindiak, behar zuela nazioarteko kongresu bat apailatu. Nahiz euskara batua nahi duen moldatu eta bultzatu, Nazioarteko Dialektologia Kongresu bat du antolatu, erakusteko ez dituela euskalkiak arbuiatzen, nehork baino hobeki gure Herri honetan dituela aztertzen. Kongresu honetara deitu ditu Europako dialektologo ikertzaile ospetsuenak, Frantziako, Espainiako, Alemaniako, Austriako, Italiako, Ingalaterrako eta Euskal Herri osoko unibertsitateetan diren erakasle, ikerle jakintsuak. Bost egunez entzunen ditugu haien mintzaldiak. Segur nago ikerketa aurrerapen premiatsua izanen dela eta hori ikusiko da aktak agertuko direlarik.

Euskal dialektologiaren sortzailearen gerizapean jarri dugu kongresua. Louis Lucien Bonaparte printzeak ohore hori haundizki merezi zuen. Kongresuaz gain, gela honetan eta sarreran daukazue Euskaltzaindiak Bonaparte printzeari eskaintzen dion erakusketa, Jose Antonio Arana Martija euskaltzainak antolatua, Londreseko British Library-delakoan hiru hilabetez agertua eta datorren abenduan Baionan agertuko dena. Igaz Larramendi, aurten Bonaparte, datorren urtean Oihenart haren jaiotzaren laugarren mendeurren karietarat ohoratuko dugu. Hauxe da ere Euskaltzaindiaren eginbidea, Euskal Herriak ukan dituen idazleak hobeki ezagutzeko, kongresuak eta jardunaldiak apailatzea eta ikerketa horien emaitza eskaintzea gure Herriak ikas eta jakin dezan zer den euskal kulturaren eta euskararen aberastasuna.

Hitza hitz errepikatu dut mintzaldi honetan; ez duzue, agintari agurgarriok, Jose Antonio Agirre lehendakariak emandako hitza jan. Zorionak zuei, eskerrak zuei.

EUSKALTZAINDIAREN EGOITZAREN INAUGURAZIOA

Bilbo, 1991-X-21

Josu Ortuondo

Bilboko alkatea

Eguerdion guztioi.

Ongi etorriak Bilbora.

Azkeneko hilabeteetan, gure hiri honetan, hiru nazioarteko ihardunaldi eduki ditugu.

Baina hauek, noski, bereziak dira.

Euskal Herria, eta Bilbo bereziki, lurralde irekia izan da beti, kanpoko jende eta kulturekin.

Baina beti jakin eta nahi izan dugu, gure hizkuntza defendatu eta bultzatzen.

Beraz Euskaltzaindiaren egoitza hau, eta ihardunaldi hauek, bi berri onak dira guretzako.

EUSKALTZAINDIKO EGOITZARA SARTZEA

Bilbo, 1991-X-21

Tomas Uribeetxebarria Maiztegi

kulturako foru diputatua

Euskal Herriko Komunitate Autonomoko eta Nafarroako Jaurleritza-ko lehendakari jaun txit gorenak.

Euskaltzainburu jaun agurgarria.

Agintari eta ordezkari agurgarriok.

Jaun eta andreok:

Ohorerik haundiena da niretzat gaur Bizkaiko Foru Aldundiko diputatu nagusiaren ordezkaritza izatea ekintza honetan, bera kanpotik denez gero.

Egun haunditzat har dezakegu egun hau, Euskaltzaindiaren egoitza berriaren inauguraketarena hain zuzen. Bizkaiko Foru Aldundiak bete ahal izan du Jose Antonio Agirreren agindua, egoitza hau Euskaltzaindiari eskainiz. Orain arte hartu izan ditugun lanak egoitza hau lehen bait lehen prest egon zedin, denok ontzat jotzen ditugu eta poz betea dugu gaurko ekintza honekin. Euskaltzaindiak Euskal Herri osoa batzen du eta euskarak ere bai. Batasun horretan datza Euskal Herriaren izatea eta indarra. Ziur gaude Euskaltzaindiak jakingo duela euskarari eusten eta euskara bultzatzen, horrela gure izatea ere bere osotasunean gorde dadin.

Zorionak bada Euskaltzaindiari, eta egoitza honek balio diezaiola bere lana ahalik eta erosoan eta egokien aurrera eramateko.

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA / EUSKALTZAINDIA

Bilbao, 21-X-1991

*Juan Cruz Alli
presidente del Gobierno Foral de Navarra/
Nafarroako foru gobernuburua*

Es para mí un alto honor poder participar en este Acto de inauguración de la nueva sede de la Real Academia de la Lengua Vasca, a la que siempre ha estado vinculada Navarra a través de sus Instituciones.

Con objeto de conservarla y estudiarla nació la Academia de la Lengua Vasca a propuesta de la Diputación de Vizcaya por Acuerdo del 25-1-1918, al que se adhirieron las Diputaciones de Guipúzcoa, Alava y Navarra. Esta por Acuerdo de 2-4-1918 acepta la propuesta respecto al “Proyecto de Fundación de una Entidad o Institución cuyo fin será estudiar, purificar, robustecer, unificar y difundir el euskera y sus variedades dialectales”.

La Institución contó con los navarros Arturo Campión como académico fundador, Dámaso de Inza y José de Aguerre. La primera sesión que se celebró en Navarra fue en el año 1923 en Santesteban. En el año 1976 por Real Decreto se reconoce su personalidad, su ámbito de actuación y se aprueban sus estatutos. Su actividad se centra en la formulación de reglas gramaticales del idioma tendentes a la unificación de la lengua literaria, investigación filológica y promoción de su uso. Han sido académicos los navarros: Policarpo de Iraizoz y Angel Irigaray, siéndolo actualmente Pello Salaburu, José M.^a Satrústegui, Francisco Ondarra y Francisco Zabaleta.

En 1984 la Academia celebró en Pamplona su décimo congreso. Los certámenes de lexicología de 1986, 87 y 88 se celebraron respectivamente en las localidades navarras de Lecumberri, Leiza y Huici. En 1990, en Aralar y en Estella, se celebraron las Jornadas sobre Toponimia.

El Gobierno de Navarra participa con un 10,345 % del total de las aportaciones que recibe la Academia. Además de esta asignación anual,

se subvencionan investigaciones y trabajos de divulgación concretos: Toponimia, Gramática, *Diccionario General Vasco*, etc.

La Academia ha venido realizando una trascendental labor en el tratamiento científico de la lengua en línea con las investigaciones que realizaron el Príncipe Bonaparte, Van Eys, Arturo Campión, Unamuno, Azkue, Urquijo y hasta cierto punto Humboldt, haciendo superar las concepciones mitológicas e ideológicas sobre el hecho cultural.

En 1980 puso de manifiesto S.M. el Rey que “la situación actual es el fruto de enormes errores históricos”, que han dado lugar a un problema lingüístico con implicaciones políticas, lo que supone un evidente riesgo para un elemento cultural que, como el euskera, constituye un valor en sí mismo como lengua viva y muestra única de las primitivas lenguas de Europa. En este sentido Menéndez Pidal manifestó en Bilbao en 1921: “Tenéis la fortuna de que vuestro pueblo tenga la reliquia más venerable de la antigüedad hispana. Otras tendrán más valor artístico, serán más admiradas y codiciadas universalmente, pero no hay otra que tenga la importancia de esta lengua sin cuyo estudio profundo jamás podrán ser revelados del todo los fundamentos y primitivos derroteros de la civilización peninsular, ni podrá ser ésta esencialmente comprendida”.

Suetonio, en su obra sobre *Los XII Césares*, atribuye a Tiberio la expresión siguiente: “En una ciudad libre la lengua y el pensamiento deben ser libres”. Si la palabra es manifestación visible del espíritu, la lengua lo es de un pueblo y de una cultura, reflejo de su identidad y elemento diferenciador.

La importante misión que corresponde a esta Academia le hace merecedora del apoyo de quienes, con independencia de los diversos proyectos políticos, consideran a la lengua como manifestación de la libertad social y exponente de la cultura. Como puso de manifiesto el Acuerdo de la Excma. Diputación Foral de Navarra de 28 de noviembre de 1956 “Es de gran interés... que todas aquellas personas que en el ámbito familiar emplean el vascuence como medio común de expresión, lo continúen hablando, en orden a su conservación y transmisión a sus descendientes, ya que éste constituye el método ideal para lograr la supervivencia de nuestra antigua y venerada lengua”.

Que el lema de esta Academia, Ekin eta Jarrai, sirva de guía a su trabajo, porque sólo insistiendo y continuando, con el apoyo de las Instituciones, podrá hacerse realidad la superación de las actitudes que sólo ven en la lengua una cuestión política, sin tener en cuenta su función de vehículo de comunicación, por cuanto “la palabra es el gran órgano revelador del espíritu, la primera forma visible que adopta” (Wagner).

Muchas gracias.

EUSKALTZAINDIKO EGOITZARA SARTZEA

Bilbo, 1991-X-21

Jose Antonio Agirre

Lehendakaria

Agintariak, Euskaltzainak, Jaun-andreak.

Pozik ezezik harrotasun-puntu batez ere banator gaur, jaun-andreok, zuen artera. Izan ere, Jose Antonio Agirre, lehendakari zenak, Resurrección María Azkueri agindutakoa betetzera bait nator.

Gerra-egun larriak ziren, eta Azkue euskaltzainburua Agirre lehendakariari bixitan joan zitzaion. Elkarrizketaren harian, hauxe galdetu zion Lehendakariak Azkue haundiari: “lehengo leku xixtrin hartan zaudete?”.

Azkueren baietzari Lehendakariak honako konpromisu honekin erantzun zion: “gerra amaitzen denean etxe egoki bat izango duzue”.

Berrogeitamabost urte geroago, neri dagokit, Jose Antonio Agirre lehendakari zenaren hitza betetzeko ohorea. Bete ere, pozik betetzen dut egun honetan. Egia esan, Jose Maria Makua, Bizkaiko diputatu nagusi zenaren bihotz zabalak eta bitartekotza irmoak zerikusi haundia izan du honetan. Eta Eusko Jaurlaritzak ezezik, Nafarroako Gobernuak eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako aldundiek ere badute parterik, Euskaltzaindiari dagozkion bitartekoak eta egoitzak eskaintzeko eginahaletan.

Gure Herria erakundetzeko garaian, eginkizun berezia aitortu dio Euskaltzaindiari gure legeriak. Jaso ere, Euskal Herriko erakunde nagusien laguntza jaso du, bere eginkizun hori bete dezan. Besteak beste, *Orotariko Euskal Hiztegia* burutzeko eta argitaratzeko hitzarmena sinatu genuen, 1987ko abenduaren 17an, Bilbon. “Euskaltzaindiak Herri-aginteekin egindako hitzarmena”, Oñatin, orain bi urte. Gaur, egoitza hau eskaintzen diogu guztion artean.

Atsegin haundiz aitortu genion Euskaltzaindiari bere eginkizuna, atsegin haundiz ziurtatu diogu bere etorkizuna, atsegin haundiz eskaintzen dizkiogu Egoitza hau eta baliabide guztiak, Euskal Herriak eta

euskarak hain beharrezkoa eta presakoa duten lana, egoki eta lehenbait-lehen burutu dezan.

Euskal Herriko erakunde desberdinetako ordezkariak bildu garen ordu honetan, ordea, ez nuke geratu nahi euskara guztion altxorra eta ondarea dela gogorazi gabe. Ez nuke Oñatin esan nuena errepikatu gabe geratu nahi: “Euskal kulturak eta euskarak guztion partaidetza eskatzen du. Euskara guztiona da, ez batzurena bakarrik. Agian hauxe da irabazteko daukagun apusturik nagusia: Euskal Herriko talde guztiek, alderdi guztiek, edozein pentsamendutako andre-gizonek euskara beraien arazo, ardura eta erantzukizuntzat hartzea. Euskarak ez baitu ezer kentzen, eransten baizik. Euskarak ez baitu inor txirotxen, aberasten baizik”.

Beti izan dira gure artean hori horrelaxe dela uste izan dutenak. Norberaren ideia, zaletasun politiko edo jatorriaren gainetik hizkuntza maitatu eta landu dutenak. Hitz bakar batez esateko, euskara berea egin dutenak.

Hori oso gogoan izan zuten Azkuek, Julio Urkixok, Toribio Etxebarriak eta beste euskaltzale askok, beren garaian. Eta Bonaparte Printzeak, noski, euskaldunok baino gehiago arduratu bait zen gure hizkuntzaz euskalki guztietan. Zinez diotsuet: halako lagunen eredia apurtzeak ez dakarkio ez inori ez ezeri inongo onik. Euskaltzaindiak ere, Euskal Herri osoko erakundea denez, euskara guztien ondareztat hartzen lagundu behar die herritar guztiei, alderdikeriak eta taldekeriak baztertuz. Eta jakina, Euskaltzaindiak, bereziki, hizkuntzari dagozkion arazoetan jakin behar du zentzuz eta batasunez jokatzeko, norberaren uste eta iritziei amore emanez, hizkuntza gaurko premietara moldatu behar duen akademia bati dagokion girasa lan eginez. Euskarak, nik baino hobeto dakizue, baditu finkatu eta garatu beharreko arloak.

Barka, arren, nere atrebentzia, baina utzidazue bigarren eskaera bat egiten: “ez atzeratu zuen lanak geroko gerora”. Zuen lan moldeak bizkortu beharrean zaudete. Hartutako eginkizunak, epe barruan burutzen saiatu behar duzue. Eskatu, orain arte egin duzuen moduan, herri-aginteei lanerako behar duzuen guztia. Baina zuek ere erantzun, euskarak eta Euskal Herriak duten presa eta molde berberaz.

Har ezazue egoitza hau, hain beharrezkoa duzuen egoitza. Zuentzat lantegi izan dadila, beste lantegi guztien eredu ere bai. Hala espero dut eta hala eskatzen dizuet, euskararen, Euskal Herriaren, Eusko Jaurlaritzaren eta erakunde guztien izenean. Hala eskatu ere, pozik eta harrotasun apur batez, Jose Antonio Agirre, Euskal Herriak hain berea eta maitea zuen Lehendakari zenaren hitza betetzera zuen aurrera azaldu naizen egun seinalatuan.

Eskerrik asko.

* * *

Autoridades, Académicos, Señoras y Señores,

Comparecer hoy ante ustedes me llena de felicidad y, en cierta manera, de orgullo, ya que me dispongo a cumplir la histórica promesa que el Lehendakari José Antonio Agirre hizo en su día, al que fuera Presidente de la Academia de la Lengua Vasca Don Resurrección María de Azkue. Se trata de una promesa realizada en tiempo de guerra, al hilo de una conversación en la que el Lehendakari preguntó al presidente de Euskaltzaindia: “¿seguís estando en aquel cuchitril?”. Al asentimiento de Azkue, Agirre respondió con esta promesa: “cuando termine la guerra tendréis una sede digna”.

Cincuenta y cinco años después, a mí me corresponde el honor de cumplir la palabra dada por el difunto Lehendakari José Antonio Agirre.

En honor a la verdad no puedo menos que reconocer que la inmejorable disposición y la decidida mediación del diputado general de Bizkaia, José María Makua, han sido determinantes para ello. He de recordar, también, al Gobierno de Navarra y las Diputaciones de Araba, Bizkaia y Gipuzkoa, cuya participación ha permitido dotar a Euskaltzaindia de los medios y las instalaciones adecuadas.

Durante el proceso de institucionalización nuestra legislación ha reconocido una función específica a Euskaltzaindia al tiempo que nuestras Instituciones le han asegurado la ayuda necesaria para el correcto desempeño de su labor. Cabe destacar, en este sentido, el convenio firmado el 17 de diciembre de 1987, en Bilbao, para la realización y publicación del *Diccionario General Vasco / Orotariko Euskal Hiztegia*, así como el Convenio entre Euskaltzaindia y las Instituciones vascas y navarras, suscrito hace dos años en Oñati.

Con la misma seguridad y alegría con que reconocimos ayer el quehacer de Euskaltzaindia, nos comprometemos hoy con su futuro, y le ofrecemos, entre todos, esta sede y todos los medios necesarios para el adecuado y rápido desarrollo de los trabajos que tan perentoria y urgentemente reclaman Euskal Herria y el euskera.

En esta oportunidad en la que nos hemos reunido representantes de diversas instituciones de Euskal Herria no quisiera dejar sin recordar que el euskera es un tesoro, patrimonio de todos. No querría pasar por alto aquellas palabras que ya anteriormente pronuncié en Oñati: “La cultura vasca y el euskera requieren la participación de todos. El euskera es de todos, no de algunos en exclusiva. Quizá sea éste el principal reto que debemos afrontar: que todas las colectividades, todos los partidos, los hombres y las mujeres de Euskal Herria cualquiera que sea su ideología, adopten el euskera como algo suyo, como una preocupación y una responsabilidad propias, puesto que el euskera no quita sino da, no empobrece sino enriquece”.

Siempre ha habido entre nosotros quienes han creído que esto era así, personas que por encima de sus ideas o afinidades políticas e independiente de su origen han amado y cultivado la lengua. Para decirlo en una palabra, aquellos que han asumido el euskera.

Lo tuvieron muy en cuenta en su tiempo vascófilos como Azkue, Julio Urkijo, Toribio Etxebarria y otros muchos. Así como, por supuesto, el Príncipe Bonaparte, quien se preocupó más incluso que los propios vascos por nuestro idioma en sus diferentes dialectos. En verdad os digo: acabar con el linaje de tales personas no favorece a nadie ni a nada. También Euskaltzaindia, siendo como es institución común a toda Euskal Herria, debe ayudar a que los ciudadanos tomen el euskera como patrimonio de todos, rechazando partidismos y comportamientos sectarios. Y ni que decir tiene que Euskaltzaindia, especialmente en cuestiones lingüísticas, debe saber actuar con sentido y acuerdo, sino tolerante con las ideas y opiniones propias de cada uno, trabajando por tanto como corresponde a una Academia que debe adecuar el idioma a las necesidades actuales. El euskera, ustedes lo saben mejor que yo, tiene aún aspectos que deben ser desarrollados y establecidos definitivamente.

Perdonen, por favor, mi atrevimiento, pero permítanme decir lo siguiente: “no dejen para mañana lo que puedan hacer hoy”. Se hace necesario, por tanto, que agilicen sus métodos de trabajo. Deben procurar cumplir las tareas asumidas en los plazos previstos. Pidan, como han hecho hasta ahora, todo lo necesario para su trabajo a los poderes públicos pero respondan, asimismo, en el tiempo y en la forma que el euskera y Euskal Herria solicitan.

Reciban esta sede de la que tan necesitados están, sea para ustedes un auténtico taller, modelo de dedicación para todos los demás. Así lo espero y así se lo pido en nombre del euskera, de Euskal Herria, del Gobierno Vasco y de todas las instituciones. Y lo hago contento y en cierto modo orgulloso, en este día señalado en el que me reúno con ustedes para hacer realidad la promesa de José Antonio Agirre, lehen-dakari tan querido y adorado por el Pueblo Vasco.

Muchas gracias.